

GORBEIAKO SAIE

Juantxo artzainak sarritan entzunda eukan saiek, baraurik, denpora asko iraun eikiela. «Laster jakingo dot ori olan dan ala ez» —pentsatu eban bein—.

Saiek, Gorbeiaiko ze tokitan lurreratzen ziran berak baekian eta baekian, baita be, bein lurreratu ezkerro, barrero egaz jartzeko aitz baten gainetik artu bear ebela hegazkadea.

Joan zan ba saiek egozan lekura eta bat, lodiena bera, artu eban. Eroan eban bere artzain txabolara eta gaztaiak sikatzeko eukan tokira sartu eban. An euki eban, sal koitadue, ile baten, ez jaten ez edaten emon barik. Ila-bete igaro zanean, zabaldu eutsan atea eta... an egoan saie, bizi-bizirik.

—Orain aitz baten gainean ipiniko zaitut barrero egaz egin dagizun — saieri, maitekiro, esan eutsan—. Baina leenago «talaparea» (taloak erretzeko tresna) eskegiko deusut «samatrukutzetik», alan, ikusten zaitudan guztietan, zein zarean eta bizirik zagozan jakingo dot.

Esan eta egin, lotu eutsan talapara ori eta aitz punte zorrotz baten gainean ipini eban (saie). Bereala galdu zan saie Zeruan eta Juantxoren «begi-bistatik» aldendu.

Andik urte bete barru, San Antonioak zirala eta Juantxo Urkiolara joan zan. Eguerdi ostean, pagopean, siestatxoa botatzen egoala, arpegia estaltzeko eukan txapel gainean zeozer oartu eban. Txapela kendu eta... zer uste dozue ikusi ebala? Ba <<Talaparadun saie» bere ondo, ondoan; berak ipinitako talapara ta guzti.

Urkiolan, dagoan «Zerutik jausitako», arri gainean ipini eban eta berak Juantxok esaten dauan lez, *saie, irribarreka- irribarreka*, Zeruan desagertu zan.

Irakurlea: Bibiñe Pujana – Andereñoa – Zeanuri'koa